

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Derioko Udala

Ayuntamiento de Derio

2013





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Udala eta Derioko Udal Kiroldedia erakunde autonomoa.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	10
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa.....	10
III.3 Langileria.....	10
III.4 Kontratazioa.....	11
III.5 Diru-laguntzak.....	12
III.6 Berankortasuna.....	12
IV. FINANTZA ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK.....	16
V.1 Udala.....	16
V.2 Derioko Udal Kiroldedia Erakunde Autonomoa.....	19
ALEGAZIOAK.....	21
ABREVIATURAS.....	51
I. INTRODUCCIÓN.....	53
II. OPINIÓN.....	54
II.1 Ayuntamiento y Organismo Autónomo Derioko Udal Kiroldedia.....	54
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	54
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	55
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	56
III.1 Presupuesto y contabilidad.....	56
III.2 Ingresos y recaudación.....	56



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 Personal.....	57
III.4 Contratación	57
III.5 Subvenciones.....	58
III.6 Morosidad	59
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	60
V. CUENTAS ANUALES.....	63
V.1 Ayuntamiento.....	63
V.2 Organismo Autónomo	66
ANEXOS	69
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	69
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	69
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	71
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	72
A.5 Gastos de personal	72
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios.....	73
A.7 Inmovilizado, inversiones y patrimonio uso general	74
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	75
A.9 Deudores y otros saldos	77
A.10 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	78
A.11 Análisis de contratación	79
A.12 Indicadores financieros y presupuestarios.....	81
ALEGACIONES	83

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 26a
Vitoria-Gasteiz, 26 de noviembre de 2015



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
15/2010 Legea	15/2010 Legea, 3/2004 Legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriak ezartzeko dena.
20/2012 ELD	20/2012 Errege Dekretu Legea, Aurrekontuaren Egonkortasuna eta Lehiakortasunaren Sustapena Bermatzeko Neurriei buruzkoa.
5/2013 FA	5/2013 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzkoa.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu batagina.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DLO	38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LHL	2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu batagina.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Derioko Udalaren 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztaketak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere erakunde autonomoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Derioko udalerrriak 5.828 biztanle ditu 2013ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta bere egituran, Udalaz gain, Derioko Udal Kiroldegia erakunde autonomoa besarkatzen du.

Hondakinak biltzeko zerbitzua eta sustapen ekonomikoko beste zenbait zerbitzu, euskaltegi zerbitzuaz gain, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen bitartez ematen dira; gainera, Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren atal da, zeinak ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematen dituen.

II. IRITZIA

II.1 UDALA ETA DERIOKO UDAL KIROLDEGIA ERAKUNDE AUTONOMOA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (IKUS A.11 ERANSKINA)

1. 2. eta 3. kontratuak udalak esleitu zituen publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez, guztira 325.110 euroren zenbatekoan; ordea, publikotasun printzipioa betetzea bermatuko zuten prozedurak baliatu behar ziratekeen. Lehenengo kontratuan pleguek kontratua luzatzeko aukera aurreikusten zuten eta hala izanik, balioetsitako balioa 280.992 euroan jartzen zuten; bigarren kontratuan, berriz, eraikuntza proiektuaren aurrekontuak SPKLTBaren 177. artikulua zehazten duen 200.000 euroren muga gainditzen zuten (A1 akatsa).
2. Erakunde autonomoak 2,9 milioi euroan esleitutako 4, 5 eta 6 zk. kontratuen lizitazioak sarrera arrunten % 10eko muga gainditzen zuten eta esleipena Errektoretza Kontseiluari zegokion. Bestetara, lehenengo biren lizitazioa lurraldeko aldizkarian argitaratu zen; ordea, EBAOn eta BOEn iragarri behar zatekeen, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuak izategatik (A2 akatsa).
3. Argindarraren hornidura, mantentze-lan eta inbertsio kontratuaren egikaritzak (4 zenbakia), 2006an Erakunde autonomoak esleitutakoak, 2013an 209.233 euro egin zituen, urteko esleipen prezioa % 52an gaindituz; ez dira, baina, horretarako prezio berrikuspenak berariaz onartu, ez eta kontratu aldaketak ere, erregulazio aldaketek edo zerbitzua zabaltzeak eragindako arazoak tartean.
4. Udalak egindako beste erosketa batzuk aztertzean bost zerbitzu eta argindarraren hornidura zuzenean kontratatu direla ikusi da. Sei kasu hauetan publikotasun eta lehia printzipioak urratu ziren, 2013an zehar zerbitzu hauen eta horniduraren gastua milioi bat eurorena izan delarik.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, Derioko Udalak eta Derioko Udala Kiroldetgia Erakunde Autonomoak zuzentasunez bete dute 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak eta Erakunde Autonomoak ibilgetuko saldoak osatzen dituzten elementuen ondasun zerrenda xehatua dute. Hainbat kontu-sailen balorazioa berrikusi behar dela ikusi dugu, baina ezin zenbatetsi izan ditugu egin beharreko zuzenketak. Horregatik ezin zehatz daiteke ibilgetuko saldoek modu egokian islatzen ote duten kontularitzako balioa 2013ko abenduaren 31n (A.7 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, aurreko salbuespena alde batera, Derioko Udalaren eta Derioko Udal Kiroldgia Erakunde Autonomoaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2013ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, 2013ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2013ko ekitaldirako aurrekontu orokorra hasiera batean Udalbatzak 2013ko urtarrilaren 31n onetsi zuen; ordea, arautegiak (10/2003 FAREN 15.2 art.) behin betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- Udalak aurrekontuz kanpo erregistratu zituen hirigintzako planeamendu kontzeptuan egindako ordainketak eta lehenagoko urteetan gauzatutako sektore arteko berdinkatzeak, 2013ko abenduaren 31n 216.409 euroren kobratzeko saldoa eragin dutenak. Egokiagoa da eragiketa mota hau aurrekontuan erregistratzea, baldin eta zorrak esanguratsuak badira eta kobratzeko epe luzeak aurreikusten badira.

III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak estolderia tasen diru-bilketa eta zabor-bilketa zerbitzuak ematen ditu, dagokion mandatua gauzatu ez dela. Udalak atzerapenez aitortzen ditu tasa hauen sarrerak, Partzuergoak jakinarazitako kobrantzak erregistratzen dituenean (lau hiruhilekoen kitapenak, 2013ko ekainera arte), Partzuergoari kobrantzarako emandako errolda fiskalek eragindako sarrerak aitortu beharrean. HILBIZaren likidazioan ere atzeraldiak izan dira.
- Erakunde Autonomoaren urteko edo sei hileko kirol abonuen kontzeptuko errolda fiskalak bertako lehendakariak onartu behar ditu. Errolda horien eta beren diruzaintzaren kudeaketa Udalaren zerbitzu ekonomikoetara mugatu behar litzateke, Erakundearen administrazioko langileen plantillarik ez duelako.

III.3 LANGILERIA

- Udalaren LZk funtzionarioen 3 lanpostu huts eta desagertuko den lan kontratupeko lanpostu bat barne hartzen ditu eta beste hainbeste langile daude lan kontratuarekin, horietako bi ordezeko kontratuarekin, harik eta lanpostu horiek betetzen ez diren bitartean. Desagertuko den lan kontratupeko lanpostuak 2002ko obra kontratu batean du jatorria, 2008an lan kontratu mugagabeko bihurtu zena; horretarako, LZko lan kontratupeko lanpostu bakarra sortu zen. 2013an indarrean zegoen 2008az geroztik beste lan kontratu bat, amaiera datarik zehaztu ez zitzaiolako. Egoera hauek zuzendu egin behar lirateke lanpostuak dagozkion hautaketa proben bidez modu iraunkorrean betez, proba horiek deituz dagoenean. Gainera, Udalaren plantilla funtzionarioek osatzen dutenez gero, administrazioko araubidea baliatu behar litzateke bitarteko langileria kontratatzeko.



III.4 KONTRATAZIOA

Indarrean zeuden edo 2013an izapidetutako 6 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zaizkigu (ikus A.11 eranskina):

- Erakunde autonomoak esleitutako hiru kontratutan (4, 5 eta 6 zenbakidunak) ez zen pleguei buruzko txosten juridikorik jaulki, ezta krediturik edo kontularitzako agiri bateragarrikerik bazegoenik egiaztatu ere. Nahiz idazkariak eta artekariak Kontratazio mahaia osatu zuten, beharrezkoa da agiri horiek espedientean jasoak egotea. Hiru kontratu hauek 2,9 milioi euroan esleitu ziren (A3 akatsa).
- Erakunde autonomoaren garbiketa kontratuaren agiriak (5 zenbakiduna), 493.900 eurotan esleitu zena, ez zuen irizpideak modu berezian baloratzea aurreikusi, balio-judizioa beharrezko zuten irizpideak modu automatikoan ebaluatzen ziren haietatik bereziz. (A4 akatsa).
- 1 eta 4 kontratuetako pleguek, 2 milioi euroan esleitutakoek, ez zuten faktore ekonomikoa balioztatzeko formula txertatu (A5 akatsa). Beste 3 plegutan baliatutako antzeko formula erabili zen, non puntuen guztizkoarekin soilik diskriminatzen zuten baldin eta eskaintzarik onena 0 eurorena bazen; honenbestez, faktore honen egiazko pisua kasu guztietan murriztua geratzen zen.
- Udalak ez zien nahitazeko publikotasuna Udalaren web orrian eta aldizkari ofizialetan eman 1, 2, 4, 5 eta 6 zk. kontratuen esleipenei edo gauzatzeari, 3,6 milioi euroan esleitu zirenak (B1 akatsa).
- 1, 4, 5 eta 6. espedienteen esleipen hartzaileei eskatutako bermeak, 3,6 milioi euroan esleitutakoak, kontratuaren urteko bat oinarri hartuta kalkulatu ziren, esleipenaren guztizko zenbatekoa hartu beharrean (B2 akatsa).
- 3 zk. obra kontratuaren egikaritzea, 240.134 euroan esleitu zena, 2 hilabete atzeratu zen obrak isil bidez eten zirelako eta ez zen izapidetu (C akatsa).
- Argindarra hornitu eta instalakuntzak mantentzeko bitariko kontratuak (4 zk.) egoki definitu gabeko inbertsioak barne hartzen zituen eta ez zen horren harrera formalizatu. Gainera, espediente hau premiaz izapidetzekoa ez zen arren, lizitazio iragarkiak erdira murriztu zituen eskaintzak aurkezteko epeak, aparteko prozedura hau baliatzeko arrazoiak adierazi gabe. Azkenik, kontratuaren iraupena (10 urte) APKLTBaren 182. artikulua modu orientagarrian jasotzen duena baino (3 urte) handiagoa da, epe luzeagoa justifikatu gabe eta inbertsioaren bolumena ere oinarri hartu gabe, alde aurretik ordaindu dena (C akatsa).
- Erakunde autonomoaren aretoen garbiketa kontratuaren eskaintzak aztertu zituen txosten teknikoak ez zituen justifikatzen esleipen irizpideetako bati esleitutako puntuazioak eta ez zuen pleguko beste irizpideetako bat baloratzen (C akatsa).
- Kirol ikastaroak emateko eta langileak ordezkatzeko kontratuak bi zerbitzuak besarkatzen ditu, berezizko zerbitzuak batean biltzeko beharra arrazoitu gabe. Pleguek ordutegi-prezioa zehazten dute, zerbitzu-orduen hasierako maila finkatzeko eta horien aldaketetarako prozedurarik batere arautu gabe (C akatsa).



Horrez gain, kontratuen pleguetan esleipen irizpideak hobeto definitu behar ziratekeen (hobekuntzak, giza eta gauzazko baliabideak, kontratatu beharreko zerbitzuen antolamendua) eta kontratuaren xedearekin lotu.

Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana sailkatzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, 20/2012 LEDen 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan. Honela, bada, 1 zenbakiko kontratuaren pleguak agintzen zuen aurreko kontratistaren langileria subrogatu behar zela; ordea, betekizun hau enpresa eta langileen arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke.

Erosketa txikien analisia

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertzean ikusi da 9 kontratistari 321.404 euroan egindako erosketak prozedura negoziatu bidez esleitu behar ziratekeela, haien kopurua aintzat hartuta (ikus A.11 eranskina).

III.5 DIRU-LAGUNTZAK

- Emanaldien kontratazioek jaietako batzordeei ematen zaizkien diru-laguntzen ehuneko handia egiten dute, 36.352 euro 2013ko urtean; ordea, hirugarrenek kudeatu beharreko funtsen zenbatekoa murrizterik izango litzateke baldin eta kontratazio hauek Udalak berak zuzenean egingo balitu emanaldia antolatzen duen batzordeak hala proposatuta.
- Diru-laguntzen araudiak agintzen du jarduerak gauzatu direla justifikatu ostean egingo dela ordainketa (DLOren 34.3 art.), nahiz aurrerakinak ematen uzten duen. Aztertu ditugun hamar diru-laguntza izendunetan aurrerakinak eman ziren, bederatzi kasutan % 100 eginez, guztira 63.175 euroren zenbatekoan. Kontularitzako erregistroek ez dituzte aurrerakinak eta ohiko ordainketak bereizten eta komenigarria da, kontrol hobea izateko, azken ordainketa bat aurreikustea, aurkeztutako justifikazioa aztertu ostean.

III.6 BERANKORTASUNA

Udalak 2013ko azken hiruhilekoan ordainketa epeei buruzko hiruhileko txosten derrigorrezkoak egiteari ekin zion (15/2010 Legearen 4. art.), ordainketarako batez besteko epea 30 egunekoa zela adieraziaz. Aztertutako kontratuetan ez zen ez-betetzerik izan, baina kontratista batekin 75.960 euroren ordainketa geroratua bidegabe adostu zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2011(*)	2012(*)	2013	2011	2012	2013
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	3.974	3.692	3.769	728	656	647
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)	3.092	2.987	3.022	567	531	519
Ondare sarrerak (5. kap.)	62	132	80	11	23	14
A. Diru-sarrera arruntak	7.128	6.811	6.871	1.306	1.210	1.180
Langile gastuak (1 kap.)	1.843	1.671	1.800	338	297	309
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	2.817	2.657	2.457	516	472	422
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)	2.557	1.974	2.215	468	351	380
B. Funtzionamendu gastuak.....	7.217	6.302	6.472	1.322	1.120	1.111
Aurrezki gordina (A-B).....	(89)	509	399	(16)	90	69
- Finantza gastuak (3. kap.).....	57	80	16	10	14	3
Emaitza arrunta.....	(146)	429	383	(26)	76	66
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	1.580	1.554	-	281	267
Aurrezki garbia	(146)	(1.151)	(1.169)	(26)	(205)	(201)
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	2.143	600	1.500	393	107	257
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.)	123	37	4	23	7	1
- Inbertsio errealak (6. kap.)	2.676	311	479	490	55	82
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	-	4	-	-	1	-
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(410)	322	1.023	(74)	58	176
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(556)	751	1.408	(100)	134	242
Diruzaintza Geldikin Likidoa	3.886	2.926	1.894	712	536	347
Zorpetzea.....	2.901	1.554	-	532	285	-

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: Hirurtekoaren lehenengo urtean diru-sarrera maila dezente altua izan da, EIOZaren eraginez. Osagai nagusiei dagokienez:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** 2012ko beheraldia EIOZaren diru-sarrerak urte horretan 305.724 euro murriztu izanak eragin du eta hala ere, 2012 eta 2013an kapitulu horietako sarreren % 10 eta % 9 egiten dute. Zerga eta tasa nagusien tarifak 2012 eta 2013an aldatu ziren eta 2011n indarrean zeudenekiko % 5-6ko igoera izan zuten.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Garrantzirik handien duen osagaia Udalkutxa da, hirurtekoan bariazio handirik izan ez duena; ordea, 2012an 2009 eta 2011ko likidazio negatiboen itzulketak eragin zuen, 283.752 euroren zenbatekoan.

Funtzionamendu gastuak: Behera egin dute hirurtekoaren lehenengo urtean ezohiko kontu-sailak jaso direlako. Bariazio nagusiak honako hauek izan dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- **Langile gastuak:** Egonkor daude soldata izoztu izanaren ondorioz eta 2012an uneko beheraldi bat izan zuten aparteko ordainsari bat ordaindu ez zelako.
- **Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak:** Behera egin dute kapitulu honetako osagai garrantzizko guztiek; azpimarratzekoa da argindarraren horniketa, 179.626 eurorena, 2013az geroztik argiteria publikoaren kudeaketa osoa Txorierriko Mankomunitateari agindu baitio.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** 2011n 488.258 euroren aparteko kontu-saila jaso zen, BFARI 2012an lagatako udal egoitzak aurreko urteetan metatutako defizitak eraginda. Mankomunitateari egindako ekarpena 2013an areagotu egin da herriko argiak hornitu eta mantentzeagatik gastuak bere gain hartu izanaren ondorioz; urte horretan 200.074 euro gehigarri ordaindu ditu. Erakunde autonomoari egindako ekarpenak % 13 egin zuen behera 2011rekiko eta beste hainbeste gertatu zen gainerako diru-laguntzekin, % 15eko beherapena izan zutenak.

Aurrezki gordina eta garbia: Tarifak igo izanaren ondorioz eta erosketak, transferentziak eta diru-laguntzak murriztearekin diru-sarrerek hobera egin dute; honela, bada, 2013an aurrezki gordinak sarrera arrunten % 6 egingo du.

Finantza zamak, maileguak aldeztatik amurtatu izanaren ondorioz, sarrera horien gainean % 20 egin du; esan beharrean gaude, baina, zorpetzea kitatu egin dela urte horretan.

Kapital eragiketen emaitza: Azpimarratzekoa da 2011n inbertsioek behera egin izana, urte horretan amaitu baitzen kultura-etxe berriaren (Kultur Birika) eraikuntza eta ekipamendu lana. 6. kapituluko sarrerei dagokienez, osagarri nagusia Teknologia Parkea, SA sozietate publikotik jasotakoak dira, hiru urtekoan zehar guztira 3 milioi euroren zenbatekoan, Geldos sektoreko hirigintzako aprobeztamenduen kontzeptuan.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: Lehenengo ekitaldiko defizita ondoko ekitaldietan zuzendu zen, eragiketa arruntak orekatuaz eta are kapital eragiketetan emaitza positiboak eskuratuz ere.

Diruzaintza geldikina: 2011ko ekitaldi itxieran Geldikin likidoa zorpetzea baino handiagoa zen eta ondoko bi urteetan areagotu egin zen emaitza positiboak eskuratu zirelako eragiketa arrunt eta kapitalezkoetan; berebat, kopurua urritu zen maileguak amurtatu zirelako eta 2013ko abenduaren 31n kopurua 1,9 milioi eurorena izan zen (sarrera arrunten % 28). Erabilgarritasunari dagokienez, finantzaketako desbideratzeak eta hitzartutako kredituak murriztu ondoren, Diruzaintza erabilgarria 1,7 milioi eurorena zen.

Zorpetzea: 2010ean 3 milioi euroren maileguak kontratatu ziren inbertsioak finantzatzeko, Kultur Birika nagusiki. Geldos sektoreko hitzartutako aprobeztamenduen kopuru bereko



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

kobrantzak maileguak aldez aurretik kitatzeko baliatu dira; hori dela eta, 2013ko abenduaren 31n Udalak ez du zorrik.

Ondorioa: Eragiketa arruntetan lehenengo ekitaldian izandako desoreka ondokoetan zuzendu da, zerga eta tasetan igoerak aplikatuz eta gastuari eusteko neurriak abiaraziz; horrek eragin du 2013an aurrezki gordin positiboa eskuratzea. Berebat, azpimarratu behar da Udalak ez zuela zorpetzerik 2013ko abenduaren 31n eta data horretan Diruzaintza Geldikin erabilgarriak sarrera arrunten % 26 egiten zuela.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 5/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki, Udalaren artekaritzak txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen zela adieraziaz. 2013ko Likidazioari buruzko txostenak ondorioztatu du:

- aurrekontu egonkortasunaren helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita SEC terminoetan 1,7 milioi eurorena izan baita.
- zor publikoaren helburua bete da, ez baitago zorpetze egoerarik.
- gastuaren araua bete da, 2013 eta 2012ko likidazioen artean konputagarria den gastua araudiak horretarako aurreikusitako mugen artean hazi baita (% 1,7ko muga orokorra).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2013-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Eransk.	AURREKONTUA				ESKUBIDE. KITAT.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KOBR.		GABEA	EXEK.(*)	
1.- Zerga zuzenak	A.3	2.036	-	2.036	2.302	1.879	423	113	
2.- Zeharkako zergak	A.3	375	-	375	335	255	80	89	
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.141	-	1.141	1.132	1.050	82	99	
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt.....	A.4	2.972	-	2.972	3.022	3.017	5	102	
5.- Ondare sarrerak.....	-	70	-	70	80	59	21	114	
6.- Inbertsio errealen besterentzea	-	1.950	-	1.950	1.500	1.500	-	77	
7.- Kapital transf. eta diru-lag.	-	-	-	-	4	4	-	-	
8.- Finantza aktiboak	-	25	1.065	1.090	-	-	-	-	
9.- Finantza pasiboan bariazioa.....	-	-	-	-	-	-	-	-	
SARRERAK GUZTIRA		8.569	1.065	9.634	8.375	7.764	611	98	

(*) Exekuzioaren % kalkulatzeko Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	Eransk.	AURREKONTUA				OBLIG. AITORT.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	ORDAINK.		GABE	EXEK.	
1.- Langileria-gastuak.....	A.5	1.845	(22)	1.823	1.800	1.759	41	99	
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.6	2.485	170	2.655	2.457	2.160	298	93	
3.- Finantza gastuak.....	-	35	(19)	16	16	16	-	100	
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt...	A.8	2.229	11	2.240	2.215	2.203	11	99	
6.- Inber. errealak	A.7	396	925	1.321	479	450	29	36	
8.- Finantza aktiboak	-	25	-	25	-	-	-	-	
9.- Finantza pasiboak	-	1.554	-	1.554	1.554	1.554	-	100	
GASTUAK GUZTIRA		8.569	1.065	9.634	8.521	8.142	379	88	
SARRERAK - GASTUAK					(146)				



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan				
	HASIER.		KOB.R./		AZKEN
	ERANSK.	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak	A.9	3.239	(769)	592	1.878
Hartzekodunak	-	507	-	507	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(769)		

	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak	8.375
Aitortutako obligazioak	8.521
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	(146)
AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA AURREKO EKITALDIETAKO KITATUAK	(769)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(915)
Finantziario desbideratzeak	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	270
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	(645)

	Euroak milakotan
DIRUZAINZA GELDIKINA	
Diruzaintza geldikin likidoa 2013.1.1ean	2.925
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza	(915)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak	(116)
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz.	-
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 13.12.31-N	1.894
Diruzaintza	1.682
Aurrekontuko zordunak (A.9)	2.489
Aurrekontuz kanpoko zordunak	256
Aurrekontuzko hartzekodunak	(379)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(120)
Aplikatzeko dauden sarrerak eta ordainketak	(12)
Kaudimen-gabeziarako hornidurak (A.9)	(2.022)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 13.12.31-N	1.894
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina	(83)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	1.811
13.12.31-N ZORPETZEA	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2013 ETA 2012-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan		
AKTIBOA	Eransk.	2013	2012	PASIBOA	2013	2012
IBILGETUA		144.229	144.789	FUNTS PROPIOAK	146.123	146.160
Erabilera orokorrera emana.....		118.302	118.210	Ondarea	155.241	154.568
Ibilgetu ezmateriala.....		645	645	Atxikitako ondarea (Erak. autonomoa)	(9.387)	(9.501)
Ibilgetu materiala		24.797	32.987	Ekitaldi itxien emaitza	306	787
Lurraren Udal Ondarea.....		8.576	-	Ekitaldiaren emaitza.....	(37)	306
Pilatutako amortizazioa.....		(8.103)	(7.065)			
Ibilgetu finantzarioa		12	12			
ZORDUNAK		506	1.406	HARTZEKOD. EPE LABURRERA	311	2.066
Indarreko ekitaldiaren aurrek.	A.9	611	-	Indarreko ekitaldiaren aurrek.	379	507
Ekitaldi itxien aurrek.....	A.9	1.878	3.239	Ekitaldi itxien aurrek.	-	-
Askotariko zordunak.....		9	73	Hartzekodun ez aurrekontuzkoak ..	(216)	(177)
Entitate publikoak.....	A.9	30	-	Erakunde Publiko hartzekodunak...	98	149
Kaudimengabez. Zuzkid.....	A.9	(2.022)	(1.906)	Epe laburreko maileguak	0	1.554
				Jasot. bermeak eta gordailuak	22	7
				Aplikatzeko dauden sarrerak:.....	28	26
FINANTZA-KONTUAK		1.699	2.031			
Aurrerakinak.....		1	1			
Aplikatzeko dauden ordainketak.....		16	44			
Diruzaintza		1.682	1.986			
AKTIBOA GUZTIRA		146.434	148.226	PASIBOA GUZTIRA	146.434	148.226

2013 ETA 2012-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	2013	2012	SARRERAK	2013	2012
Langileria-gastuak.....	1.913	1.783	Negozio zifraren zenb.	961	986
Ibilgetua amortizatzeko zuzk.....	618	491	Zerga zuzenak	2.302	2.180
Horniduren aldaketak	116	(47)	Zeharkako zergak	335	353
Kanpoko zerbitzuak	2.344	2.545	Jasotako transf. eta dirul.	3.022	2.987
Emand. Transf. eta dirulag.	2.215	1.977	Transf. eta kapital diru-lag.	4	37
			Bestelako sarrerak.....	1.731	884
USTIAPENAREN MOZKINA	1.149	678			
EMAITZA FINANTZARIO POS.	4	-	EMAITZA FINANTZARIO NEG.	-	(60)
			AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	(1.191)	(411)
APARTEKO IRABAZIAK	-	99			
EKITALDIAREN MOZKINA	-	306	EKITALDIAREN GALERA	(37)	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 DERIOKO UDAL KIROLDEGIA ERAKUNDE AUTONOMOA

2013-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Eransk.	AURREKONTUA			ESKUBIDE	KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	594	-	594	533	534	-	90
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt...	-	368	-	368	368	368	-	100
5.- Ondare sarrerak	-	12	-	12	1	1	-	9
7.- Kapital transf. eta diru-lag.	-	-	-	-	-	-	-	-
8.- Finantza aktiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
SARRERAK GUZTIRA		974	-	974	902	903	-	93

Euroak milakotan

GASTUAK	Eransk.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileria-gastuak.....	A.5	229	-	229	220	217	3	96
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.6	728	-	728	723	694	29	99
4.- Transferentzia arruntak.....	A.8	3	-	3	2	2	-	68
6.- Inber. errealak	-	14	-	14	6	6	-	45
GASTUAK GUZTIRA		974	-	974	951	919	32	98
SARRERAK - GASTUAK					(49)			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	Eransk.	HASIER.	BALIOG.	KOB.R./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA			
Zordunak	-	-	-	-	-
Hartzekodunak	-	262	-	262	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA					

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak.....	902
Aitortutako obligazioak.....	951
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	(49)
AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(49)
Finantziario desbideratzeak	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	-
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	(49)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 2013.1.1ean.....		152
Aurrekontuaren emaitza		(49)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 13.12.31-N		103
Diruzaintza		145
Aurrekontuko zordunak		-
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....		3
Aurrekontuzko hartzekodunak		(32)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		(13)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 13.12.31-N		103
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....		(12)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA		91
ZORPETZEA 2013.12.31n		-

EGOERAREN BALANTZEA 2013 ETA 2012-KO ABENDUAREN 31-N			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2013	2012	PASIBOA	2013	2012
IBILGETUA	8.806	9.006	FUNTS PROPIOAK	8.909	9.158
Ibilgetu materiala-kostua.....	10.812	10.806	Atxikipen bidean dagoen ondarea	9.387	9.501
Pilatut. amortiz. Ibilgetu ez-materiala ...	(2.006)	(1.800)	Aurreko ekitaldietako emaitza	(229)	(114)
			Ekitaldiaren emaitza.....	(249)	(229)
			HARTZEKOD. EPE LABURRERA	45	273
FINANTZA-KONTUAK	148	425	Indarreko ekitaldiaren aurrek.	32	262
Aurrerakinak	3	-	Entitate publiko hartzekodunak	10	8
Diruzaintza	145	425	Bermeak eta beste	3	3
AKTIBOA GUZTIRA	8.954	9.431	PASIBOA GUZTIRA	8.954	9.431

2013 ETA 2012-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK			Euroak milakotan		
GASTUAK	2013	2012	SARRERAK	2013	2012
Hornidurak	411	403	Negozio zifraren zenb.....	530	515
Langileria-gastuak.....	220	206	Jasotako transf. eta dirul.....	368	368
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura.....	206	207	Osagarrien sarrerak.....	3	6
Kanpoko zerbitzuak.....	312	319			
Emandako diru-laguntzak	2	2			
			USTIAKETA GALERA	(250)	(248)
EMAITZA FINANTZARIO POS.	1	7			
AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK	-	12			
			EKITALDIAREN GALERA	(249)	(229)



DERIOKO UDALAREN 2013KO URTEALDIAREN KONTUEN FISKALIZAZIO EMAITZEI EGINDAKO ALEGAZIOAK, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK EGINDA

I.- SARRERA OROKORRA.

Lehenean, sarrera orokor bat egitea komenigarria delakoan gaude, alegazio-idazki honen edukia argitzeko xedearekin.

Horrela, Fiskalizazio-txostenaren "I. Sarrera" atalak honakoa jasotzen du:

"I. SARRERA.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), otsailaren 5eko 1/1998 Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz, eta Epaitegiko bilkura osoak onartutako Lan Planarekin bat etorriz, 2013ko urtealdirako Derioko Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Fiskalizazio honek honako alderdiak besarkatzen ditu:

- *Legezkoak: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegiak bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidura, eta diru-laguntzen emakida.*
- *Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu. Kontu Orokorrak honakoak ditu: egoeraren balantzea, galera eta irabazien kontua eta txostena, eta baita Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.*
- *Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.*
- *Bestelako alderdik: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhertasunari buruzko azterlanik besarkatzen, eta ez ditu Udalaren eta Autonomiadun Erakundearen kudeatze prozedurak besarkatzen. Nola nahi ere, fiskalizazioan sortutako alderdi partzialak komentatuta daude txosten honen II. idazpuruan xehetasunez jasota daude.*

Derioko Udalak 5.828 biztanle zituen 2013ko urtarrilaren 1ean eta bere estrukturaren daude, Udalaz gain, Udal Kiroldegia Autonomiadun Erakundea.

Hondakinak batzeko zerbitzua eta ekonomia sustatzeko zerbitzua, gehi euskaltegia, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak betetzen ditu, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko kidea izaten, azken honek uraren hornidura eta osasunbide zerbitzuak ematen ditu."

Herri-kontuen Euskal Epaitegiak adierazi duena ikusita, aipatu behar dugu, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legeak bere 1. artikuluan definitzen du honela, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko organoa, zuzenean Eusko Legebiltzarraren menpean.



Halaber, gaineratzen du, Herri Kontuen Euskal Epaitegia izango da Euskal Sektore Publikoaren ekonomia-finantza eta kontabilitate jarduera ikustatuko duen organo gorena, eta zuzenean Eusko legebiltzarraren menpe dagoen organoa den aldetik, bere eginkizunak Euskal Legebiltzarraren izenean eramaten ditu aurrera Euskadiko Erkidegoaren lurraldean.

Jarraian Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 9. artikuluari jarraiki, fiskalizazioaren xedea da Euskal Sektore Publikoan dauden Erakundeek ekonomia-finantzariko jardueraren antolamendu juridikora egokitzea.

Are gehiago dagoenean, fiskalizazioa ere izango da honakoa, Euskal Sektore Publikoan dauden Erakundeek ekonomia-finantzariko jardueren eraginkortasuna aztertzea eta arrazionalizatzeko neurriak proposatzea eta horiek hobetzea erakunde hori guztientzat edo batzuentzat.

Azkenean, aipatutako lege testu horren 10. artikulua agintzen du Herri-kontuen Euskal Epaitegiak, besteak beste, honakoak fiskalizatuko ditueala:

- Euskal Sektore Publikoak emandako kontratuak .
- Euskal Sektore publikoko ondarearen egoera eta aldaketak.

Bada, aurreko legegintza-aginduek legearekin bat datorrela erakutsi dute. Hori horrela Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak “2013. urtealdirako Derioko Udaleko Kontu Orokorra” fiskalizatu ahal izan du.

Halaber, Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13.1 artikulua, hitzez hitz, honakoa dio:

“13. artikulua- Txostenak.

1. El ejercicio de la función fiscalizadora del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas se materializará en informes que podrán ser ordinarios o extraordinarios.

Con anterioridad a la elaboración de los informes, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas dará cuenta de los resultados de fiscalización efectuada a las personas o entes fiscalizados a fin de que aleguen o aporten los documentos o justificaciones que estimen oportuno en la forma y plazos que al efecto se establezcan.”

Ondorioz, aipatutako Testu Legalaren 13. artikulua babesean, eta Herri-kontuen Euskal Epaitegiari errespeturik handienarekin, Derioko Udalaren izenean, alegazio-idazki hau aurkezten dut, alderdiak eta justifikazioak adierazteko nahiarekin, Administrazio honen iritziz horiek kontuan hartu behar izan dira fiskalizazio Txostena egiterakoan.



II. TXOSTENAREN EMAITZEI BURUZKO ALEGAZIOAK

II.1. DERIOKO UDALA ETA DERIOKO UDAL KIROLDEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.

KONTRATAZIOA (ikusitoki A.11 Eranskina).

Herri-kontuen euskal epaitegiaren testua.

- “1. Los contratos 2 y 3 fueron adjudicados por el Ayuntamiento mediante procedimiento negociado sin publicidad, por un total de 325.110 euros, cuando procedía usar procedimientos que garantizaran el cumplimiento del principio de publicidad. En el primer caso, los pliegos preveían prórrogas del contrato cuya consideración situaba su valor estimado en 280.992 euros y en el segundo, el presupuesto del proyecto constructivo superaba el límite de 200.000 euros del artículo 177 del TRLCSP (deficiencia A1).”
2. La licitación de los contratos 4, 5 y 6, adjudicados por el Organismo Autónomo en 2,9 millones de euros, superaban el límite del 10% de los ingresos corrientes y su adjudicación correspondía al Consejo Rector. Por otro lado, la licitación de los dos primeros se publicó en el boletín territorial, pero debió anunciarse, además, en el DOUE y BOE por tratarse de contratos sujetos a regulación armonizada (deficiencia A2).
3. La ejecución del contrato de suministro energético, mantenimiento e inversiones (número 4), adjudicado en 2006 por el Organismo Autónomo, ascendió en 2013 a 209.233 euros, superando en un 52% al precio anual de adjudicación, sin haberse aprobado expresamente las revisiones de precios, ni las modificaciones del contrato motivadas en cambios regulatorios o en ampliaciones del servicio (art. 101 TRLCAP).
4. En la revisión de otras adquisiciones realizadas por el Ayuntamiento, se detecta la contratación directa de cinco servicios y del suministro de energía eléctrica. En estos seis casos se incumplieron principios de publicidad y concurrencia, ascendiendo a 1 millón de euros el gasto de estos servicios y suministro durante 2013.

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos que se detallan en los párrafos 1 a 4, el Ayuntamiento de Derio y el Organismo Autónomo Derioko Udal Kiroldegia han cumplido razonablemente en el ejercicio 2013 la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.”

Alegazioak:

Derioko Udalak eta bere Autonomiadun Erakundeak egindako kontratuen jarduerari buruzko alegazioak banaka agertzen dira idazki honen III. 4 (Kontratazio) atalean.



Dena den, aurretik esan behar da, Derioko Udalaren zein bere Derioko Udal Kiroldegia Autonomiadun Erakundearen xedea dela kontratuen jarduera egokitzea gaietan indarrean dagoen legegintzara momentu bakoitzean.

Horren froga da, HKEE berak baieztatu duela 2013ko urtealdian lege araudi hori arrazoiz bete dela.

Hala ere, HKEEko txostenean dauden salbuespen txikiak ikusita, Derioko Udalak eta bere Derioko Udal Kiroldegia Autonomiadun Erakundeak baliabideak jarri dituzte horiek zuzentzeko, horrela kontratuak berez egokitzen dira Sektore Publikoko Legeriak xedatzen duenera.

II.1.2 URTEKO KONTUEN GAINEKO IRITZIA.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

“1. El Ayuntamiento y el Organismo Autónomo disponen de un inventario detallado de los elementos que componen los saldos de su inmovilizado. Hemos detectado la existencia de partidas cuya valoración debe ser revisada, pero no ha sido posible cuantificar las correcciones a realizar. Por ello, no es posible determinar si los saldos del inmovilizado reflejan adecuadamente su valor contable a 31 de diciembre de 2013 (anexo A.7).”

En opinión de este Tribunal, excepto por la salvedad anterior, las Cuentas Anuales del Ayuntamiento de Derio y de su Organismo Autónomo Derioko Udal Kiroldegia expresan, en todos los aspectos significativos, la actividad económica del ejercicio 2013, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre de 2013 y los resultados de sus operaciones en el ejercicio.”

Alegazioak:

Puntu hau azalduta dago A.7 eranskinean, eta honela banatu daiteke:

1.-Azpiegituren amortizazioa.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

En el epígrafe “infraestructuras entregas al uso general” se incluyen las inversiones en caminos, calles, alumbrado público, y otros servicios de utilización general, iniciando en el 2013 la amortización de los elementos incorporados a partir de 2008, originando dotaciones por 126.535 euros, y el resto hasta los 547.656 euros de amortización acumulada con cargo a Pérdidas de ejercicios anteriores.

Alegazioak:

2013ko urtealdian, eta “Erabilera orokorrerako Azpiegiturak eta ondareak” 201. kontuaren barruan nahiko ondasunak zeundela kontuan hartuta, prezio-jaistea izan zutenak bereizten



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

dira, bide seinaleztapenean eta argiteri-, saneamendu- eta edateko ur-sareetan egindako inbertsioak hain zuzen ere.

Abiapuntu bezala 2009ko urtealdia hartu zen, urtealdi horretan Udalbatza osoak udal inbentario eguneratua onetsi zuelako.

Horrela, ondasun horiek amortizatu ziren, guztira 547.656,56.-Euro; 421.121,75.-Euro, horiek aurreko ekitaldiko zenbatekoak ziren, eta 126.534,81.-Euroko zenbatekoa 2013ko urtealdiari zegokion.

Erabilera orokorrerako azpiegiturak jasota bazeuden ere aurreko arautegian, beharrezkoa da dagokion zuzenketa egitea 2015. urtealdirako Kontu Orokorrean. Dena den, aipatu behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 Foru Dekretua, Bizkaiko toki entitateen kontabilitateari arau esparrua ezartzen duena, horrek 201. kontua kendu eta azpiegiturak biltzen ditu 212. kontuan (ibilgetu materialen artean) eta baita horien amortizazioa 2812. kontuan; beraz, 2016ko Kontu Orokorrean berriz idazpen zuzena egin beharko da arautegi honetara egokitzeko xedearekin.

2.- Ibilgetu inmaterialaren amortizazioa.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

“Por el contrario, el inmovilizado inmaterial no es objeto de amortización”.

Alegazioak:

Idazpen zuzena erabiliz beharreko amortizazioak egingo dira 2015eko Kontu Orokorrean. Amortizazioaren zifra iritsi beharko zen 581.108,84.-Eurora 2013ko abenduaren 31n.

3.-“Eraikinak eta eraikuntzak” 2.755.265,01 Euroko eraikina barnean dago.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

En el epígrafe “Edificios y construcciones” se incluye el polideportivo 2,8 millones de euros de valor neto, que también se incluye en el epígrafe de Patrimonio adscrito por producirse errores al registrar la adscripción.

Alegazioak:

2010. urtean akats egin zen Autonomiadun Erakundearen lursaila eta eraikina erregistratzean. Balantzean eta udalaren inbentarioan baja eman beharrean idazpen bat egin zen 100. kontuan.

Akats material hori zuzentzeko: 2010. urtealdian egindako idazpena egin beharko da signo negatibo batekin, udalaren balantzean baja egin beharko da, udalaren inbentarioan baja eman beharko zaie kiroldegiko lursailari eta eraikinari. 2013ko abenduaren 31eko dataren zifra eguneratua iritsi beharko zen 2.755.265,01.-Eurora (balore hori sortu da, 2009ko udalbatza osokoak onartutako inbentario eguneratua abiapuntu gisa hartuta).

Higiezin horien baloreak erregularizatu behar dira kiroldegiko balantzean eta inbentarioan aurreko paragrafoan azalduta dagoen bezala.



4. Kontabilitate-erregistroaren eta inbentarioaren artean aldeak.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

“En cuanto al Inmovilizado material del Organismo Autónomo: el valor neto del inmovilizado coincide con el detalle individual de los elementos del inventario, pero no con los registros contables de coste y amortización.”

Alegazioak:

95.532,73.-Euroko ondasun batzuk daude inbentarioaren kontu ezberdinetan bilduta eta OOAAren balantzean bilduta. Horrela adierazten zen inbentarioaren 2213. kontuan (eraikinarekin batera) eta balantzearen 226. kontuan (altzariak). Ondasun horiek, euren izaerengatik, interpretazio ezberdinak sortu ziren inputatu behar zen kontua egitean eta euren erregistroa egitean kontabilitatean eta inbentarioan.

Horiek aztertzean, dirudi egokiena dela 2213. kontuan biltzea, eta, beraz, instalazio tratamendu izatea eta ez altzari tratamendua (aparka-bizikletak, umeentzako jokoak, erabilera anitzeko oholtza, atezain bideoa...); orduan, zuzendu beharko da idazpen zuzena egiten Autonomiadun Erakundearen kontabilitatean.

Edozelan ere, horien baloreak, baita metatutako amortizazioak ere, ez daukate aldaketarik ibilgetu materialaren zenbatekoetan.¹

III.- BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRITZIAK.

Atal honetan akatsak aipatzen dira, baina horiek ez dute eragin handirik ekonomia-finantzariko jardueren printzipioak betetzean. Baita prozedura-alderdiak ere aipatzen dira kudeaketa hobetzeko.

III.1- AUREKONTUA ETA KONTABILITATEA.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

“- El Presupuesto General para el ejercicio 2013 fue aprobado inicialmente por el Pleno el 31 de enero de 2013, cuando la normativa (art. 15.2 NF 10/2003) prevé su aprobación definitiva antes del inicio del año.”

Alegazioak :

Bizkaiko Lurralde Historikoko Herri Erakundearen Aurrekontuaren abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak 50. artikuluan xedatzen duenari jarraiki, 2013ko urtarrilaren 1ean luzamendua automatikoki egin zen aurreko urtealdiko aurrekontuentzat, 2013ko urtealdirako aurrekontua behin betiko onetsi arte.

¹ Kontularitzako erregistroen eta banakako xehapenaren arteko aldea 325.137 eurorena da.



Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

“- *El Ayuntamiento registró extrapresupuestariamente pagos por planeamiento urbanístico y compensaciones entre sectores materializados en años anteriores que generan un saldo a cobrar a 31 de diciembre de 2013 de 216.409 euros. Resulta más adecuado registrar presupuestariamente este tipo de operaciones si las deudas son significativas y se prevén largos plazos de cobro.*”

Alegazioak:

Aipatutako kontabilitate-erregistro horien abiapuntuaren oinarria da, gehiena, 162.465,36 Euro. Euskal Herriko Lurzoruen eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.1.h) artikulua, “Urbanizatzeko kargak” kontzeptuan honakoa sartzen duenean:

“h) Horiez gain, egikaritu behar den hirigintza-antolamenduan edo jarduketa-programan berariaz aurreikusten bada, baita ondorengoak ere: azpiegitura-obra eta egikaritze-unitateaz kanpoko zerbitzuak, baldin eta beharrezkoak badira bai unitateko sareak udaleko edo udalez gainerako sare orokorrekin egokiro lotzeko, bai sareon funtzionalitatea mantentzeko; eta orobat lursailak ezartzen zaizkien gainerako karga osagarri guztiak.”

Azken finean, sektore edo egite unitate batzuek izan dituzten urbanizatzeko kostuak dira. Azpiegitura eta/edo zerbitzu onuragarriak dira besteentzat nahiz eta mugakide ez izan. Derioko Udala dagozkion kobrantza eta ordainketen gestorea baino ez da, eta hasiera batean, ez da ikusten denboraldi handiak behar direla kudeaketa horiek betetzeko.

2014ko abenduaren 31n, esandako zenbatekoa 78.944,41 Eurora beheratu zen, -Ganbe Bekoa- sektoreari zegokiena. Dena den, urte hauetako eraikuntza egoeratik, sektore horrek ez du aurrera egin; beraz, hori horrela, eragindako jabeak ez zaizkie likidazioak bidali urbanizatzeko kargengatik.

Aldi berean, gainontzeko zenbatekoa da proiektuen gastuengatik eta ordainsari profesionalengatik. Hori Derioko Udalak ordaindu du aurretik, administrazio jarduna delako kooperazio sistema batean, “Ganbe Bekoa” eta “Errementariñe” sektoreak aurrera eramaten, eta lehenari dagokionean, aipatutako arrazoi berberengatik, ukitutako jabeak bidali zaizkie.

III.2. SARRERAK ETA ZERGA-BILKETA.

Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

“- *El Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia presta servicios de recaudación de las tasas de alcantarillado y recogida de basuras sin que se haya formalizado la correspondiente encomienda. El Ayuntamiento reconoce con retraso los ingresos de estas tasas al registrar los cobros comunicados por el Consorcio (liquidaciones de cuatro trimestres hasta junio de 2013), en vez de reconocer ingresos por los padrones fiscales entregados al Consorcio para su cobro, También se detectan retrasos en la liquidación del IIVTNU.*”



Alegazioak:

Atal honetan hiru iritzi eman behar ditugu:

- 1.- Lehenean, Uren Partzuergoari, mandatu gabeziari dagokionean, estolderia tasen bilketa eta hondakin bilketa zerbitzua hain zuzen ere, aipatu behar dugu, Derioko Udala Bilboko Udalatik desanexionatu zen 1983ko urtarrilaren leian, horren ondorioz, Uren Partzuergoak aipatutako zerbitzua ematen jarraitu zuen berez, egiten zuen moduan, zerbitzua inoiz eten gabe.
- 2.- Bigarrean, Uren Partzuergoak bildutako tasen bilketaren errekonozimenduari dagokionean, aipatu behar dugu, erakunde horrek egindako hiruhilabeteko likidazioaren komunikazioarekin egiten dela. Bi likidazio aurreko ekitaldikoak izan arren, lau hiruhilabeteko likidazioak diru-sarreraren aurrekontuan daude beti; beraz, ez dago inolako akatsik zerga-bilketan.

Ildo horretan gaineratu behar da, ekitaldiaren hasieran Uren Partzuergoari hondakin errolda eskatu ahal bazaio ere, beharreko eskubide errekonozimendua egiteko eta horien gainean likidazioak aplikatzeko, ez da posible. Hala ere, estolderia tasarekin egin da, hori geroago egiten delako zergadunak kontsumitzen duen ur-kantitatearen arabera. Ondorioz, iritzi ezberdinak daudenez, Udal honek horiek batu zituen kontabilitate-idazpena egiterakoan. Horretarako, estatuko esparruan eta erkidegoko Lurraldeko toki erakundeen esparruan zegoena oinarritzat hartu zen, diru-sarrerei zegokienean kontabilitate europar sisteman ezarritakoa betetzen zuelako. Horrela, sortzapenaren orde zerga-bilketa iritzi bati jarraitu zitzaion.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko 139/2015 Foru Dekretuak arautzen duen kontabilitate-plan berriaren 3. erregelari, Bilketa-gestioa iraunkorra bada, baliabideen titular diren erakundeek informazioa emate hori gertatzen denean egin ahal izango dute aipatu eragiketen kontabilitate-erregistroa, kasuan kasuko eragiketak sortu diren aldia edozein izanda ere. Horretarako, bilketa-gestioa iraunkortzat hartzeko, beharrezkoa izango da gestio hori gutxienez elkarren ondoko bi ekitaldi osotan egin izana, edo egingo dela aurreikustea. Eta hori, argi eta garbi, gertatzen da hondakin batuketaren eta estolderiaren tasak Uren Partzuergoan biltzen dituenean.

- 3.- Hirugarrenean, IIVTNU berankorraren likidazioari dagokionean, aipatu behar dugu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauk bere 67. artikuluan honakoa xedatzen duela: administrazioaren eta zergapekoen eskubideak lau urteren buruan preskribituko dira.

